

## 2016KO MARTXOAREN 1EAN UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSO BILKURAREN AKTA.-

### BERTARATUAK:

#### LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko and.

#### ZINEGOTZIAK:

Idoia Arenaza Sáenz del Burgo and.

Manuel Muñoz Morentin jn.

Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jn.

Zuriñe Sáenz Sáenz and.

Mikel Herrador Iriarte jn.

Juanjo García de Acilu Pérez jn.

María Asun Quintana Uriarte and.

Susana Sáenz de Ugarte Corres and.

IDAZKARIA: Miguel A. Oliveira Barral; ekitaldiaren fede ematen du.

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udal Ohoretsuaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamaseiko martxoaren 1a izanda, hemeretziak eta lau zirela, goian esandako Zinegotziak lehen deialdian elkartu ziren Udalbatzaren ohiko osoko bilkura egiteko Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrearen lehendakaritzapean, Idazkari-Kontuhartzailea bertan egonda.

Jarraian, apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 46.2.C) artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma egiaztatzeari ekin diote, eta batzordea eratutzat jo da. Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

### 1.- AKTEN ONESPENA

Lehendakari andreak galdetu du Udalbatzaren kideren batek esatekorik duen 2016ko otsailaren 2ko ohiko bilkuren aktari buruz. Horren kopia helarazi zitzaizen Zinegotzi jaun-andre guztiei, oraingo bilkurarako deiarekin batera.

Aurkeztutako aktak aho batez onartu egiten dira. Lehendakari andreak onartu direla adierazten du; eta haien transkripzioa Akten Liburura egitea agintzen du, R.O.F 110.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

### 2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

Zkia.	Data	Edukia
13	2016/02/01	IBILGAILUREN ZERGA ITZULTZEA IBILGAILUAREN BAJAGATIK
14	2016/02/03	BANKU-TRANSFERENTZIA ONESPENA
15	2016/02/04	OBREN LIZENTZIA EMATEA CENTRO KALEAN LEIHOAK ALDATZEKO
16	2016/02/05	OBREN LIZENTZIA EMATEA SUBIDA AL FRONTON KALEAN BARNE OBRAK EGITEKO
17	2016/02/05	OBREN LIZENTZIA EMATEA SAMUEL PICAZA PLAZAKO LOKALEAN BARNE OBRAK EGITEKO
18	2016/02/08	OBREN LIZENTZIA EMATEA ARRABAL KALEKO HORMAN
19	2016/02/12	GAINBALIOA AURKEZTEKO LUZAPENA EMATEA
20	2016/02/12	HOBARIAK EMATEA IBILGAILUEN ZERGAN VI-8640-K
21	2016/02/12	OBREN LIZENTZIA EMATEA YOAR KALEAN BARNE OBRAK EGITEKO
22	2016/02/12	OBREN LIZENTZIA EMATEA ARRABAL KALEAN FATXADA KONPONTZEKO
23	2016/02/17	GAINBALIOA AURKEZTEKO LUZAPENA EMATEA
24	2016/02/17	MAILEGUAREN TRANSFERENTZIA EGITEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA
25	2016/02/18	OBREN LIZENTZIA EMATEA 1229 LURZATIAN 1 POLIGONOAN ATEA ALDATZEKO
26	2016/02/18	OBREN LIZENTZIA EMATEA ARRABAL KALEAN BEHEKO SOLAIRUAN LANAK EGITEKO
27	2016/02/18	OBREN LIZENTZIA EMATEA SAMUEL PICAZA PLAZAN LABEA JARTZEKO OBRAK EGITEKO
28	2016/02/25	JATETXEAREN JARDUERA LIZENTZIAREN JABETZA-ALDAKETA EMATEA
29	2016/02/25	2016KO MARTXOAREN 1EAN OSOKO BILKURA DEIALDIA

### **3.- ETXEBIZITZA SOZIALA ALOKATZEKO OINARRIEN HASIERAKO ONARPENA, EGOKIA BADA.**

#### **ZIOEN AZALPENA:**

Kanpezuko Udalaren jabetza den babes sozialaren etxebizitza alokatzeko aurreko prozedura hutsala izan denez, oinarri arautzaileak aldatzeko beharra dagoela ikusirik.

Alkatetzak egin duen ondorengo aldaketa-proposamena ikusirik "Erroldaren irizpidea ez da kontuan hartuko hautapen-prozesuan parte hartzeko aukera izateko, baina eskaeren lehia egotekotan herriko erroldan antzinate handiagoa daukana nagusituko da".

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

#### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho batez onartu dute:

**LEHENA.-** Santikurutze Kanpezuko herrian eskuragarri dagoen babes sozialaren etxebizitza alokatzeko pertsonen hautapen-prozesuaren oinarri arautzaileak aldatzeko Alkatetzak egindako proposamena onartzea.

**BIGARRENA.-** Esandako oinarriak Udalaren web orrian [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus) eta iragarki taulan 15 eguneko epean argitaratu, eskaerak aurkeztu ahal izateko.

### **4.- ADMINISTRAZIO TASEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI ONARPENA, EGOKIA BADA.**

#### **ZIOEN AZALPENA:**

Alkatetzako proposamenaren arabera -Arloko Zinegotziak azaldu duena-tramitatatu den Administrazio tase eta zerbitzuen zerga ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena emateko egindako espedientea ikusirik.

Uztailaren 19ko 41/1989 Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 16tik eta 18 artikulura eta apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 22 eta 47 artikuluetan zehaztutakoa ikusirik.

#### **EZTABAIDA - PARTE-HARTZEA**

Saenz andreak azaldu du hileko abonamendua suposatuko duen tarifa berri bat sortuko dela.

Saenz de Ugarte andreak galdetu du nola kudeatuko da.

Muñoz jaunak adierazi du biderik hoberena aztertzen ari direla, agian karneten koloreak edo hamabostaldi naturalak, data batetik beste batera, e.a.

García de Aciluk galdetu du ea azertu den sor daitekeen defizita.

Muñoz jaunak esan du azertu behar dutela, baliteke defizita izatea edo diru-sarrera handiagoak izatea.

#### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Onartu dute Basterra, Muñoz, Arenaza, Sáenz, Ruiz de Loizaga, Herrador, Quintana eta Sáenz de Ugarte Zinegotzi jaun-andreen aldeko 8 botoekin; eta García de Acilu Zinegotzi jaunaren abstentzioarekin.

**LEHENA.-** Administrazio tase eta zerbitzuen zerga ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea.

**BIGARRENA.-** Behin-behineko akordioa hogeita hamar egun (30) baliodunez jarriko da jendaurrean Udalaren Iragarki Taulan, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik kontaktzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea azertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzakete.

**HIRUGARRENA.-** Espedienteak jendaurrean jartzeko epea igarota, behin betiko erabakia hartuko da balizko erreklamazioak ebatzi ondoren.

Esandako epean erabakiaren aurka erreklamaziorik aurkeztu ezean, arteko behin-behineko erabakia behin betiko izaera hartuko du.

**LAUGARRENA.-** Behin betiko akordioa, baita izaera hori hartu duen behin-behinekoa eta aldaketako testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

## ERANSKINA

### 6.3.2.3. Artikulua. Hileko abonamendua

	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
Helduak	20,00 €	27,00 €
Haurrak	14,00 €	20,00 €
Erretiratuak	14,00 €	20,00 €

## **5.- KANPEZUKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA, EGOKIA BADA.**

### **ZIOEN AZALPENA:**

Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 8.1. artikuluan xedatutako ikusirik zeinaren arabera, dirulaguntzak eman nahi dituzten herri administrazioetako organoek dirulaguntzen plan estrategikoa onartu behar dute, eta honako hauek zehaztu behar dituzte bertan: dirulaguntzen helburuak eta haien bitartez lortu nahi diren ondorioak, horiek gauzatzeko epealdia, aurreikusten diren kostuak, eta finantzabideak; plana gauzatzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea.

Apirilaren 2ko 7/1985 Erregimen Lokalaren Oinarriak arautzen dituen Legearen eskumenak ikusirik.

### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho batez onartu dute:

**LEHENA.-** Onartzea 2016-2018 aldirako diru-laguntzen plan estrategikoa

**BIGARRENA.-** Akordioa ALHAOn argitaratzea, baita Udalaren iragarki taulan eta [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus) web orrian ere.

## **6.- KULTURA, KIROL ETA EUSKARA ARLOETAN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO 2016KO DEIALDIA ONARTZEA, EGOKIA BADA.**

### **ZIOEN AZALPENA:**

2010eko ekainaren 9an, 63 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen diru-laguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen udal ordenantza ikusirik.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Legeak, berau garatzeko erregelamenduak eta Aurrekontua Betearazteko Araudiak jasotzen duten deialdi publikoaren beharra ikusirik.

### **XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho batez onartu dute:

**LEHENA.-** Kultura, Kirol eta Euskara arloetan diru-laguntzak emateko 2016ko deialdia onartzea.

**BIGARRENA.-** Deialdia ALHAOn, Udalaren iragarki taulan baita [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus) web orrian ere argitaratzea.

**7.- ADMINISTRAZIO BATZARRENTZAKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA ONARTZEA,**  
**EGOKIA BADA.**  
**ZIOEN AZALPENA:**

Kanpezuko administrazio batzarrentzako funtzionamendu gastu orokorrak eta herriko jaiek eragindako gastuak finantzatzeko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak ikusirik.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Legeak, berau garatzeko erregelamenduak eta Aurrekontua Betearazteko Araudiak jasotzen duten deialdi publikoaren beharra ikusirik.

**XEDAPENAK:**

**AKORDIOA:** Bertaratuek aho batez onartu dute:

**LEHENA.-** Kanpezuko administrazio batzarrentzako funtzionamendu gastu orokorrak eta herriko jaiek eragindako gastuak finantzatzeko dirulaguntzak emateko 2016ko deialdia onartzea.

**BIGARRENA.-** Deialdia ALHAOn, Udalaren iragarki taulan baita [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus) web orrian ere argitaratzea.

**8.- MARTXOAREN 8A DELA ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA,**  
**EGOKIA BADA.**

**Udalerri eta Eskualdeetako Gobernuak bat egin dute Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunaren alde, Europan eta Munduan**

Europako Udalerri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasuna Tokiko Bizitzan Sustatzeko Batzorde Iraunkorrak adierazi du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna funtsezko eskubidea eta oinarritzko balioa dela demokraziarentzat. Tokiko eta eskualdeetako gobernuek herritarrengandik gertuen dauden esferak dira, eta, hortaz, esku-hartzerako maila garrantzitsuak dira oraindik ere dirauten desberdintasunei aurre egiteko eta emakumeen eskubideak Europan eta mundu osoan sustatzeko.

Emakumeen Nazioarteko Egun honetan, 2016ko martxoaren 8an, tokiko eta eskualdeetako gobernuen ordezkariak helburu hauen inguruan elkartu dira:

Gogoratzea demokrazia ezin eraiki daitekeela emakumerik gabe, eta, horrenbestez, beharrezkoak diren neurriak hartu behar direla, maila guztietan –tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa-, emakumeek eta gizonek parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan;

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gure balioen eta europar gizartearen oinarritzko elementua dela bermatu dezatela eskatzea estatuetako gobernuei eta Europako instituzioei; beraz, elementu horrek agenda politikoaren erdigunean egon behar du, eta politika eta lege garrantzitsu guztietan txertatu behar da;

Berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat hartu dezatela eskatzea Europako hiri eta eskualde guztiei, CCRE-CEMRk 2006an plazaratu eta dagoeneko 1.500 hiri eta eskualdek baino gehiagok sinatu duten Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna sinatzearen bidez;

Berdintasuna eskualde eta toki mailan sustatzeko neurri politiko konkretuak hartu ditzatela eskatzea Gutunaren sinatzaileei, CCRE-CEMRk Behatoki<sup>1</sup> honen bidez eskura jartzen dituen tresnak erabiliz, estatu bakoitzean tokiko eta eskualdeetako gobernuei ematen zaizkien botereen arabera; eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela.

Emakumeek XXI. mendean pairatzen jarraitzen duten indarkeria salatzea: bizitza pribatuan zein publikoan emakumeen aurka zuzentzen den indarkeria forma guztiei aurre egin behar zaie eta ezabatu egin behar dira, honako forma hauek barne sartuta: emakumeen trafikoa, sexu-esplotazioa, etxeko indarkeria eta giza eskubideak urratzen dituzten gainerako ekintza guztiak;

Genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak sortu ditzatela eskatzea estatuetako gobernuei eta EBko instituzioei. Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta haren aurka borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Hitzarmena) berretsi dezatela eskatzea gobernu nazionaleri;

Kontuan hartzea gerra eta jazarpenetik ihes eginda gure hiri eta udalerrietara iristen diren errefuxiatuen artean dauden emakume eta haurren behar espezifikoak; beharrezko harrera eta arreta ziurtatzea, eta era guztietako indarkeria eta diskriminazioa eragozteak;

Maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea erakutsi dezatela, Nazio Batuen Erakundearen 2030eko Agendaren 5 Helburuak lortzeari begira, horrek xedetzat hartzen baitu emakumeen aurkako diskriminazio forma guztiak ezabatzea.

Aurkeztu den proposamena bozkatu dute bertaratuek, eta aho batez onartu dute.

## **6.- LEHENDAKARITZAREN TXOSTENA**

Lehendakaritzak arlo desberdinetako Zinegotzi-Ordezkariei hitza eman die azken bileraren ostean egindako gestioak azal ditzaten.

Saenz andreak, Kultura Zinegotzia den heinean, urteko egutegi kulturala ematearen berri eman du.

Aipatu du otsailean kiroldegian hezetasun arazoak izan direla, eta balizko irtenbideak bilatzen ari direla.

Hilak 13an badago Pirritx eta Porrotxen emanaldia, XVII. Mendea Kultur Elkarteak sustatuta.

Caja Vitaleko fundazioarekin bilera egin da hainbat arlotan – azoka, kultura, lana-elkarlana zabaltzeko. Herrador jaunak adierazi du Kuadrillak ere antzeko bilera izan duela gai horien inguruan, baita materialaren ekarpena egiteko ere bai.

Bukatzeko adierazi du aurtengo igerilekuetarako lehiaketa lizitatu dela dagoeneko.

Arenaza andreak, Gizarte Gaietarako Zinegotzia den heinean, adierazi du Arabarriko etxebizitza tasatuen prezioak merketu direla, bide desberdinetarik publizitatea eginez.

Era berean, aipatu du hurrengo martxoaren 8an, Mujer Campeza elkarteak antolatuta bazkaria egingo dela Iturrienea tabernan, eguerdiko 14:30ean. Ondoren, 18:30ean Samuel Picaza Plazan, Lamingorriak taldeak antolatuta, elkarretaratzea izango dela.

Kartel digitalen lehiaketari buruz, aipatu du dagoeneko ebatzi dela.

Pasa den ostegunean, Lagunkoiak egitasmoaren lehen topaketa izan zen, oso emaitza positiboekin.

Muñoz jaunak, Ogasun eta Emplegu Zinegotzia den heinean, aipatu du langile baten lanposturako hautatse prozesuan guztira 24 pertsonak badaudela, eta momentu honetan baremazioa egiten ari dela, gardentasun osoz.

Batzorde ekonomikoaren inguruan, Erein 2015eko deialdian jaso da jolastokia, zabunak eta jolastokiko zolata estaltzeko diru-laguntza. Eta, Udalaguntzan jasotakoarekin batera, uste du esku-hartze osoa egitea posiblea izango dela.

Eta Udalaren diru-kontuen inguruan, aurreko Udalbatzan aurreratu zen bezala, adierazi da otsailaren 29ko datan, aurrekontuaren betearaztearen egoera, gastuak eta sarrerak kontuan hartuta; aurrekontuaren kaputuluaren arabera gehi kontaketa akta. Garcia de Acilu jaunak galdetu du zein den amaierako emaitza. Muñoz jaunak adierazi du egun 40 mila euro baino gutxiagokoa dela. Garcia de Acilu jaunak esan du defizita badagoela. Muñoz jaunak azaldu du hori badela egun dagoen emaitza, diruzaintzan 300 mila euro baino gehiago badaudela.

Ruiz de Loizaga jaunak Hirigintza Zinegotzia den heinean, garbigunea aipatu du, dagoeneko abian dagoela esatako, eta gogoratzeko Santikurutze Kanpezuko Administrazio Batzarrak kudeatzen duela.

Foru Planari buruz adierazi du kirol ekipamenduen inguruneak hobetzeko aurkeztutako diru-laguntza onartu dutela, tartean kiroldegiko zorrotzenak eta hustubide hodiak.

Biodibertsitateari buruzko bilera egin da, autonomia erkidegoan estrategia komuna aztertzeko.

Bukatzeko, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailarekin bilera egin da aztertzen ari diren hainbat gai jorratzeko.

## **10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Alkate andreak udal bozeramaileei galdetu die bestelako konturen bat adierazi nahi duten, honako hauek galdetu dituzte:

- Saenz de Ugarte andreak galdetu du enpresa informatikoen aurrekontuei buruz. Ruiz de Loizaga jaunak azaldu du batzuk jaso direla, baina motel doala gaia.
- Era berean galdetu du Ekain-ek lanean hasi den, Alkate andreak argitu du hilabete honetan ez dela erabili.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko arratsaldeko zortziak bost gutxitan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.